


# #JesusGureanEreBidelagun HELDUAK

DELEGACIÓN DE ANUNCIO Y CATEQUESIS  
FEDE ZABALKUNDE ETA KATEKESIRAKO ORDEZKARITZA



Une zailetan, talde-lanak, elkartasunak, hurkotasunak, entzute eraginkorrak, etxeko telefonora deitzeak, sareak ehuntzen eta gure herri eta auzoetako elkarteak sendotzen laguntzen diguten hartu-emanak sortzen dizkigutela erakutsi digu aldi honek.

Azken bi hilabete hauetan, gureelizak itxita egon dira, baina, aldi berean, hainbat ekimen jarri da martxangure kristau elkarteek ahulenen esanetara jarrai dezaten, Berri Ona hots eginez eta fedea ospatuz.

**Begiratu bat egiteko, klikatu irudiaren gainean**



Ziurgabetasunez beteriko aldiaren ostean, ziurtasunak eta ohiturak behar ditugu, normaltasunera itzuli ahal izateko. Baina, zer da normaltasunera itzultzea hainbeste gauza aldatu den aldian? Nola itzuli normaltasunera oraindik kalera era mugatuan eta adinaren arabera ateratzen garen aldian? Nola itzuli normaltasunera, oraindik hilabete hauetan hil direnak agurtu ez baditugu? Nola itzuli, bizia ezin badugu ospatu? Zenbat iraungo du egoera honek? Zeintzuk dira prozesu honen ekonomia, osasun eta gizarte ondorioak?

Duela egun batzuk ekin diogu neurriak arindu eta normaltasunerako prozesuari. Batek baino gehiagok ezagutzen duen normaltasunera, betikora itzuli nahi duela dirudi: berriz kaleak bete, adiskideekin elkartu eta bizi izan dugun aldi hau ahaztu... Baina, benetan, zalantzasu beteriko unea bizi dugu orain ere... Beharbada, Jainkoarengan konfiantza jartzea dagokigu, "normaltasun berri" deitutako hori eratzeko. Eta beharbada, kristau elkarte bezala, testuinguru honetan Eliza nola izan jakitea dagokigu. Hausnartzeko..., nola izan Eliza normaltasun berri honetan?

#JesusGureanEreBidelagun



Barneratzeko., ... nola izan Eliza normaltasun berri honetan?



Klikatu irudi bakoitzaren gainean.

Espirituak gidatuta, bitartekoak hartu eta “egintzak” gauzatu behar ditugu, gure elkarteak aldi berri honi aurre egiteko prest izan daitezen.

Klikatu irudi bakoitzaren gainean.



Entzule



Iragarle



Zerbitzari gara



Erantzunkide

Bat-batean, hauskortasuna, makaltasuna... hitzak entzun ditugu ozen. Bat-batean, besteak ezinbesteko ditugula antzeman dugu... Bat-batean, dena ez dagoela geure indarren menpe, hainbat gauza kontrolpean ez dugula... ikusi dugu. Eta bat-batean, batek baino gehiagok, Jainkoa behar duela gogoratu du. Baina gizarteak normaltasunera itzuli nahi du eta Elizak ere bai. Egunerokoa berreskuratzeko bidezko gogo horretan, bizi izandakoa eta, horrekin batera, ikaskuntza berriak edo aldi honetan sortu diren kristau elkarte izateko era berriak ahazteko arriskua dugu.

## Hausnartzeko...

Klikatu irudiaren gainean.



Kristau elkarteak, zure herrikoak, zure auzokoak,... “normaltasun berriaren” aurrean kokatu beharra du:

- Esperientzia honen ostean, zein gizarte aldaketa gertatu ote da?
- Emozio, ekonomia, osasun arloan, zein ondorio utzi digu aldi honek? Zeintzuk dira gizatalderik ahulenak? Datozen hilabeteetan, gure herri edo auzoetan, zein gizatalde bihurtu behar dugu Elizaren jardueraren hartzaile nagusi, Jainkoaren nahia bete ahal izateko?
- Ezagutzen dituzu egoera honen gordintasuna bereziki jasan duten zure elkarteko gizabanako edo gizataldeak? Badakizu nola dauden, nola bizi izan duten aldi hau, zer behar duten?
- Hasi dira elizak irekitzen. Zein sentipen, sentimendu eta galdera eragiten dizu horrek? “Betiko normaltasunera” itzuli aurretik denbora dezente igaroko dela kontuan hartuta, zer egin dezakegu elkarteak irekita eta bizirik izan daitezen?


Igokundearen ostean, hasierako kristauek ere “normaltasun” berrira ohitu behar izan zuten; antolatu eta elkarteak martxan jarri zuten. Gaur, gauza bera egin behar dugu geuk ere, Espirituaz fidatu, Jainkoarekin eta elkartearekin bat egin!

## Jainkoagaz eta elkartegaz alkartzeko

1. Piztu kandela; Jainkoa agertzera emateko era da.
2. Kandelaren inguruan, elkarteko kideen izenak idatzi. Normalean hartu-emana duzun haiena eta zurekin bateratasun handirik ez dutenena. Gogoan izan itzazu.
3. Klikatu irudiaren gainean eta arretaz entzun.
4. Jainkoari eskerrak eman kristau elkarrengatik.
5. Atera kandela eta izenen argazkia eta gizarte sareetan jarri hashtag honekin: #JesusGureanEreBidelagun



Irakurtzeko,  
Klikatu irudiaren gainean



Entzuteko,  
Klikatu irudiaren gainean